

# Asisko gutuna

2012ko Azaroa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

49. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hilabete honetako gogoetarekin berriro itzuli gara gure espiritualtasunaren oinarrietara, hau da, Jainkoarekin harreman pertsonala lantzerara.

Gogoetagaiak bizi dugun krisi garai honek guztiok zalantzan jartzen gaituela adierazten digu. Galderen garaia da, bilatzaileen garaia.

Ezinbestekoa zaigu geldione bat egitea, bai geure buruarekin bai Jainkoarekin aurkitzeko.

Jaunak lagun diezagula etxea harkaitz gainean eraikitzen.

## Gogoetarako gaia

### *Jainkoa Ebanjelioan ezagutu*

Azken urteotan murgildurik bizitu garen gizar-tean, gozatzea, edukitzea eta itxurak egitea izan da jaun eta jabe; eta konturatu gabe “krisiak” azpian hartu gaitu, eta bizitzaren oinarri genuen guztia bertan behera joan zaigu.

Eta geure buruari galdetzen diogu: Eta orain zer?

Azkenean geure burua ez ezagutzeraino ere etorri gara, pentsatu ere egiten ez genituen bizieratan izatera. Arrastan eramanak izan gara eskaini zaigun mundu erraz, itxuraz eta edergarritz beterikoan, zeinetan nork bere buruan baizik ez duen pentsatzen.

Etorria dugu planto egiteko eta eskaintzen zaigun aukera aprobetxatzeko, geure bizitzarako axolazkoa den galdera geure buruari egiteko, unea. Zer egin nahi dut neure bizitzarekin? Zeren bila nabil?

Jainkoa ez da ezagutzen teologia asko jakitearekin, sakrifizioak egitearekin, konplimenduan eta

otoitzean jardutearekin. Jainkoa, berak Jesus bere Semeagan, Jainko gizon eginagan, agertu digun Hitzean ezagutzen dugu.

Jesus bere bizitzaz eta hitzaz joango zaigu aditza ematen, nola nahi duen Aitak gu bizitza, guk otoitz eta erregu egitea, guk besteei eta geure buruari begiratzea.

Jesusen Hitza egunez egun entzunez ikus dezakegu geure burua ispiluan bezala eta aurkitu, nolako aldea dagoen bere bizitzeko eta jokatzeko moduaren eta gurearen artean. Zein erraz ahazten ditugun guretzat argi diren bere hitzak.

Hitza entzutea eta praktikan jartzea, Jainkoaren bizian sartzeta da, horrek bihotza eta begirada guri aldatzen utz dezagun. Nork bere burua pobre ikustea eta haren laguntzaren beharrean garela jakitea da, alegia, horrela geure bizitzari zentzua emateko, hain zuzen orain krisian den gizarteak eskainitako argi-liluren artean galdutako zentzua.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 7, 24-27

«Beraz, nire hitz hauek entzun eta betetzen dituen, etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zuhurraren antzekoa da. Euri-jasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso zioten; baina ez zen erori, oinarriak harkaitzean zituelako.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituen, ordea, etxea hondar gainean eraiki zuen gizon zentzugabearen antzekoa da. Euri-jasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso zioten; eta erori egin zen eta dena hondatua gelditu».

## Frantziskotar espiritualtasuna

“Hara, *ni zuekin nago munduaren azkenera arte* (Mt 28,20). *Nik eman dizkizuedan irakatsiak espiritu eta bizi dira* (Jn 6,63). *Neu naiz bidea, egia eta bizia* (Jn 14,6). Eutsi diezaiegun, bada, Jesu Kristoren hitz, bizimodu eta irakaspenari eta Ebanjelio santuari, hark gure alde erregutu nahi izan baitzion Aitari eta bere izena agertu guri” (1Er 22,38-41).

Jesu Kristo, haren pertsona eta bizitza, haren hitzak eta Ebanjelioa beti gogoan eta geure aurrean bizirik edukitzera gonbidatzen gaitu Frantziskok, zeren eta horrela bakarrik aurkitu eta *ikusi* ahalko baitugu hura gurekin dagoela. Gogoan izan beti Jesu Kristo eta bere Ebanjelioa, hori baita modu bakarra Bera guretzat bide, egia eta bizitza izan dadin: *bidea*, Jainko Aita dakarkigun bidea eta gu Jainko Aitarekin eta senideekin aurkitzera bidera gaitzakeena; *egia*, Aitaren egiazko aurpegia eta pertsona ororen misterio sakona azaltzen digun egia; eta *bizia*, beraren bidez Aitak bizirik nahi gaituena.

Beti gogoan izan Jesu Kristoren hitzak eta Ebanjelio santua, zeren eta Jesusek hitzean bere *espiritua* eta *bizia*, presentzia eta arnasa, ematen baitizkigu, horrela maitasunean eta emanak bizitzean jarraitzen dioten ikasle izan gaitezen (ik. 1Er 22,1-4).

## Otoitza

Ene Jainko, bihotz bihotzez maite zaitut,  
nire bizitza zure Hitzera zabaltzeko joran osoz,  
berori hazi on gisa onartzeko irrikaz, lore bihur dadin.  
Erne dadila zure Hitza nire bihotzean  
eta ager diezadala zure nahia, zure plana,  
zure egitasmoa nire bizitzarako.  
Onar dezadala proiektu hori, egin dezadala neure eta onar pozik.  
Ene Jainko, gogo osoz maite zaitut,  
bihotz-bihotzez, indar guztiz.  
Har itzazu nire talentu, ilusio eta ametsak eta  
eraman itzazu Bizia bidetik. Biziaraz nazazu, Jainko bizi!

Ene Jainko, indar guztiz maite zaitut,  
neure bizitzak duen pobreziaz,  
neureak ditudan ahulezia eta ezerezaz.  
Nire pobrezian izan zaitez zu nire aberastasun,  
eta ahul naizenean eragin bekiz zure graziak.  
Tori nire ezereza eta bete zeure Betetasunaz.  
Ene Jainko, maite-grinaz gauza guztien gainetik maite zaitut.  
gauzarik nireena, minena eta xeratsuen bezala maite zaitut.  
Irakatsiezadazu, Jainko Jauna, maitasunean zurekin leial izaten,  
zure maitasunean irauten.  
Neure hutsegiteak gorabehera, maite zaitut, ene Jainko.

## Gutuneko azken hitzak

“Otoitza da gizakion sendotasuna eta Jainkoaren biguntasuna”.

## 2012ko abenduko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduko erreferentzia guztiak:

1 Lk 21,34-36	7 Mt 9,27-31	14 Mt 11,16-19	21 Lk 1,39-45	28 Mt 2,13-18
2 Lk 21,25-28.34-36	8 Lk 1,26-38	15 Mt 17,10-13	22 Lk 1,46-56	29 Lk 2,22-35
3 Mt 8, 5-11	9 Lk 3,1-6	16 Lk 3, 10-18	23 Lk 1,39-45	30 Lk 2,41-52
4 Lk 10,21-24	10 Lk 5,17-26	17 Mt 1,1-17	24 Lk 1,67-79	31 Jn 1,1-18
5 Mt 15,29-37	11 Mt 18,12-14	18 Mt 1,18-24	25 Jn 1,1-5.9-14	
6 Mt 7,21. 24-27	12 Mt 11,28-30	19 Lk 1,5-25	26 Mt 10,17-22	
	13 Mt 11,11-15	20 Lk 1,26-38	27 Jn 20,2-8	

Geure web gunea bisitatu



www.asissarea.org

  
Asis Sarea

646 21 48 96

## Carta de Asís

Noviembre de 2012.

Principio 1. Buscar cada día la relación personalizada con Dios

Número 49

Durante este mes vamos a trabajar la carta de Asís desde el primer principio de la red: “Buscar cada día la relación personalizada con Dios”. Hoy lo haremos reflexionando y orando con el tema propuesto en la carta: Conocer a Dios en el Evangelio.

### ***Conocer a Dios en el Evangelio.***

Vamos a comenzar nuestro trabajo, haciéndonos las mismas preguntas de la reflexión. En este momento de crisis de todo tipo, en la que estoy lleno de dudas, miedos, incertidumbres. ¿Ahora qué? ¿A qué soy llamado en este momento?

Vamos a intentar mirarnos hacia dentro haciéndonos la siguiente pregunta.

¿Qué puede suponer en mi vida parar y reflexionar sobre todas estas situaciones actuales de incertidumbre, miedo...? Seguramente, surgirán intuiciones de que tengo que cambiar muchas cosas en mi vida. ¿Estoy dispuesto a ello?

En los momentos de crisis, personales, sociales... ¿Qué busco?

Cuando me encuentro conmigo mismo y no sé qué salida dar a las situaciones que me está tocando vivir. ¿Por qué no busco a Dios? Solo Él y desde Él podremos dar salida a nuestros miedos, dudas e incertidumbres.

Pero, ¿dónde buscarlo, para encontrarnos con Él y conocerle? A Dios podemos conocerle de muchas maneras, siempre que Él se nos haga presente. Cuando alguno de nosotros le busca, Él ya nos ha buscado antes.

Durante este tiempo, vamos a acercarnos a Él, desde su Palabra.

Desde esa Palabra hecha carne que es Jesús, Él nos irá conduciendo hacia el Padre.

¿Estás descubriendo que la Palabra del Evangelio es luz y vida para ti? ¿Va cambiando tu mirada al mundo y a los demás?

### **“El que escucha estas palabras mías y las pone en práctica...”**

Escuchar las palabras de Jesús, no es decir: “¡ Qué bonito!” Y quedármelas para mí. Es estar fundamentado en esa Palabra que es roca fuerte y

porque, pase lo que pase en la vida, sabemos que estamos en buenas manos.

También quiere decir que si la palabra es roca para mi, tengo la responsabilidad de ser testimonio, con mi vida, de dónde estoy cimentado.

¿Dónde me está pidiendo el Señor poner en práctica su Palabra? Intenta no hacer una lista de tópicos e ilusiones sino concretar en personas y situaciones.

¿Qué situaciones me hacen tambalear y ponen en duda mi fundamento?

Ora con el texto y entrega al Señor todo aquello que te lleva a derrumbarte, que te lleva a la ruina.

### **Tener presente a Jesucristo y a su santo Evangelio”**

San Francisco descubrió qué era el fundamento de su vida. Jesucristo y su Evangelio.

Seguir a Jesús, significa entregarse a los demás con amor. Para nosotros es imposible, estamos demasiado condicionados por nosotros mismos, por los que nos rodea.

Vamos a pedir al Señor, que nos dé la luz que necesitamos para descubrir que solo Él es *el camino, la verdad y la vida*.

Solo así podremos ser sus discípulos y no solo conocer a Dios desde su Palabra, sino también conocernos a nosotros mismos a través suyo.

### **...”abrir mi vida a tu Palabra”**

Haz oración con el texto. Haz tuyas esas palabras.

Entrégate al Señor desde el corazón. Pídele que vaya cambiándote el corazón para que su Palabra se haga en ti, vida nueva.

Aprenderemos a amar solo torpemente y reconociéndonos pobres y necesitados de su Gracia.